

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

Tokiko Gobernu Batzarraren erabakia, 2025eko urtarrilaren 24koa, "autonomoentzako txeketa, 2024. urtea" izeneko udal dirulaguntzen deialdi publikoaren lehenengo ebazpena onesten duena

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.1 eta 4. artikuluetan xedatutakoarekin ildotik, iragarki honen bitartez jakinarazten zaie interesdunei Tokiko Gobernu Batzarraren 2025eko urtarrilaren 24ko erabakiaren edukia, zeinaren bitartez "autonomoentzako txeketa, 2024. urtea" udal programaren deialdiaren lehenengo ebazpena onetsi baita; hona hemen ebazpenaren edukia:

2024ko ekainaren 28an onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak "Autonomoentzako txeketa, 2024. urtea" izeneko laguntzen udal programaren deialdia eta oinarri arautzaileak (2024ko uztailearen 17ko ALHAO, 80. zenbakia), konkurrentzia sinplearen prozeduraren bidez izapidetzeko.

Aipatutako deialdia finantzatzeko baliabide ekonomikoak 100.000,00 euro dira guztira, 2024rako udal aurrekontuko 2024/08.21.4331.489.50 ("autonomoentzako txeketa") partidaren kontura.

Eskabideak aurkezteko epea 2024ko irailaren 2tik abenduaren 13ra bitartekoa da (9. oinarria). Hala ere, ebazpen-proposamen honek 2024ko irailaren 11ra arte jasotako eskabideak jasotzen ditu, zuzenketarik behar izan ez dituztenak, deialdiaren 12. oinarriari jarraikiz ("Aurkezten direneko data, ordua eta minutua kontuan harturik erantzungo zaie eskabideei, baldin eta akatsen bat zuzentzeko eskatu beharrik ez badago. Akatsen bat zuzendu behar izanez gero, berriz, eskabidea baliadun izan dadin beharrezko diren agiri osagarriak aurkezten direneko eguna, ordua eta minutua hartuko dira kontuan, eta, edonola ere, 7. oinarrian adierazitako aurrekontu-kreditua agortu arte.

2024ko azaroaren 15eko idazkiaren bidez jakinarazi zuten Enpresen Udal Zerbitzuko teknikariek 62 eskabide jaso zirela lehen fase honetan, eta horietatik 32 eskabidek ez zituztela deialdiaren baldintzak betetzen.

Deialdiaren 16. oinarriaren arabera, Vitoria-Gasteizko Udalak 960 euroko dirulaguntza emango du 6. oinarrian jasotako betekizunak betetzen dituzten onuradunen LAABeko lehen altarengatik. Laguntza horiek emateko prozedura konkurrentzia sinplea da, sarrera-erregistroaren ordenaren arabera.

Lehen fase honetan onuradun guztiei dagokien dirulaguntzaren zenbatekoen batura 28.800,00 euro da; beraz, kreditu nahikoa dago betekizunak betetzen dituzten eskabide guztietarako.

Tokiko Gobernu Batzarrak du dirulaguntzak emateko eskumena, haren egitekoa baita kudeaketa ekonomikoa eta, beraz, Dirulaguntzen Estrategi Plana bideratzea, Toki Jaurbidearen Oinarrien Legearen —Tokiko Gobernu Eraberritzeko Neurri buruzko 57/2003 Legeak emandako idazkuntzan— 127. artikuluan 1 g) eta 2. ataletan eta Dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren 8.1 artikuluan finkatutakoaren ildotik. Ildo beretik, deialdian bertan ezarritako prozeduraren arabera, Tokiko Gobernu Batzarrak du eskabideak ebazteko eskumena (12. oinarria).

Horrenbestez, udal aurrekontuetan nahikoa kreditu-zuzkidurarik badagoenez, udal teknika-riek egindako proposamena aintzat harturik, eta eskumenak eskuordetzeko 2023ko ekainaren 22ko erabakia dela medio, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariek Tokiko Gobernu Batzarrari aurkeztzen dio honako

Lehenengo ebazpen-proposamena

Lehena. 2024ko azaroaren 15eko proposamen teknikoa ikusita, 12. oinarriarekin bat etorritik, eta deialdiaren oinarrietan ezarritako betekizunak betetzen direla egiaztatu ondoren, onestea "Autonomoentzako txekoa, 2024. urtea" programaren barruan 2024ko irailaren 11ra bitartean honakoek aurkeztutako dirulaguntza-eskabideak:

NAN/AIZ	DIRULAGUNTZA	NANA	DIRULAGUNTZA
58017175C	960 €	58504129H	960 €
18596628R	960 €	72750589W	960 €
72756055V	960 €	72850654V	960 €
54120422L	960 €	72739926B	960 €
Y7602497E	960 €	72751868Q	960 €
72747222Q	960 €	X7781884H	960 €
72757787R	960 €	Y9209162E	960 €
76138384N	960 €	44672823S	960 €
53251729J	960 €	Y9884308A	960 €
44349601N	960 €	44682376T	960 €
20102061S	960 €	51455700P	960 €
53284511C	960 €	47563004Q	960 €
X9251028Z	960 €	03867255N	960 €
72732991E	960 €	43161099Q	960 €
72473034B	960 €	72481967C	960 €

Bigarrena. 2024ko azaroaren 15eko proposamen teknikoa ikusita, 4. eta 6. oinarriarekin bat etorritik, eta betetzen ez direla egiaztatu ondoren, ukatzea, adierazitako arrazoiengatik, "Autonomoentzako txekoa, 2024. urtea" programaren barruan 2024ko irailaren 11ra bitartean honakoek aurkeztutako dirulaguntza-eskabideak:

NAN/AIZ	ARRAZOIA
72719482Z	4. oinarria: Onuraduna ez den pertsona, jarduera-aniztasuneko egoeran dagoena
44674955P	4. oinarria: Onuraduna ez den pertsona, jarduera-aniztasuneko egoeran dagoena
X7779613R	6.b oinarria: Lehen alta LAABen 2023ko otsailaren 1a baino lehen
X2190544R	4. oinarria: Onuraduna ez den pertsona, jarduera-aniztasuneko egoeran dagoena
X5591214Y	6.b oinarria: Lehen alta LAABen 2023ko otsailaren 1a baino lehen
44680523X	6.b oinarria: Lehen alta LAABen 2023ko otsailaren 1a baino lehen
72757216M	6.b oinarria: Lehen alta LAABen 2023ko otsailaren 1a baino lehen
X1015371J	6.b oinarria: Lehen alta LAABen 2023ko otsailaren 1a baino lehen
34081442L	6.b oinarria: Lehen alta LAABen 2023ko otsailaren 1a baino lehen
16270553P	6.b oinarria: Lehen alta LAABen 2023ko otsailaren 1a baino lehen
72722402J	4. oinarria: Onuraduna ez den pertsona, merkataritza-sozietateko bazkidea
71347669J	4. oinarria: Onuraduna ez den pertsona, jarduera-aniztasuneko egoeran dagoena
72752367D	4. oinarria: Onuraduna ez den pertsona, merkataritza-sozietateko bazkidea
58040857N	4. oinarria: Onuraduna ez den pertsona, jarduera-aniztasuneko egoeran dagoena
72906904D	4. oinarria: Onuraduna ez den pertsona, jarduera-aniztasuneko egoeran dagoena
16287820W	6.b oinarria: Lehen alta LAABen 2023ko otsailaren 1a baino lehen
49801735T	4. oinarria: Onuraduna ez den pertsona, jarduera-aniztasuneko egoeran dagoena
B1376653	4. oinarria: Onuraduna ez den pertsona, jarduera-aniztasuneko egoeran dagoena
16289420S	6.c oinarria: Ez da alta emanda egon, etenik gabe, 12 hilabetez gutxienez, lehenengo altaren egunetik

NAN/AIZ	ARRAZOIA
72733775R	6.b oinarria: Lehen alta LAABen 2023ko otsailaren 1a baino lehen
72733203G	6.c oinarria: Ez da alta emanda egon, etenik gabe, 12 hilabetez gutxienez, lehenengo altaren egunetik
16255162G	6.b oinarria: Lehen alta LAABen 2023ko otsailaren 1a baino lehen
72756698Q	4. oinarria: Onuraduna ez den pertsona, jarduera-aniztasuneko egoeran dagoena
X8965844F	6.b oinarria: Lehen alta LAABen 2023ko otsailaren 1a baino lehen
18595383K	6.b oinarria: Lehen alta LAABen 2023ko otsailaren 1a baino lehen
X6231446X	6.b oinarria: Lehen alta LAABen 2023ko otsailaren 1a baino lehen
X2395853N	6.b oinarria: Lehen alta LAABen 2023ko otsailaren 1a baino lehen
16266447L	6.b oinarria: Lehen alta LAABen 2023ko otsailaren 1a baino lehen
72834920S.	4. oinarria: Onuraduna ez den pertsona, jarduera-aniztasuneko egoeran dagoena
725745514Y	6.b oinarria: Lehen alta LAABen 2023ko otsailaren 1a baino lehen
72830718E.	4. oinarria: Onuraduna ez den pertsona, jarduera-aniztasuneko egoeran dagoena
72857752P	4. oinarria: Onuraduna ez den pertsona, jarduera-aniztasuneko egoeran dagoena

Hirugarrena. "Autonomoentzako txeketa, 2024. urtea" izeneko laguntza-deialdian emandako dirulaguntzen zenbatekoa (28.800,00 euro) 2024/08.21.4331.489.50 aurrekontu-partidaren kontura jasota uztea, eta onuradunei ordaintzea, ordainketa bakarrean, deialdiaren 17. oinarrian ezarritakoari jarraituz.

Laugarrena. Erabaki hau argitaratzea Vitoria-Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan eta ALHAOean, Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Legearen irizpideei jarraikiz (12. oinarria).

Bosgarrena. Ebazpena onuradunei jakinaraztea. Orobat jakinaraztea ebazpenaren kontra, administrazio-bidea agortzen baitu, zuzenean aurkez daitekeela administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera kontatuta.

Nolanahi ere, aldeztu aurretik aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez daiteke erabakia hartu duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik —kasu horretan, ezingo da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik aurkeztu hori berariaz edo ustez ebatzi arte—. Ondoren, ebazpen espresua ematen bada, bi hilabeteko epea izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkezteko, egintza jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta; bestela, edozein unetan aurkeztu ahalko da, berariazko araudiaren arabera administrazioaren isiltasunaren ondorioak sortzen diren egunaren biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteizen, 2025eko urtarrilaren 27an

Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko Administrazio Zerbitzuko burua
JOSEBA ANDONI GARCIA-ARDANAZ ARDANAZ